



Ostiral honetan,
gaueko 21:30ean,
emakumeak eta
musika ardatz
hartuta

2015eko martxoaren 6, 431 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

MUSIKA EMANALDIA BASTERON

Korrika 19 Ospakizuna Urnietan eta bertso afaria Andoainen



Porrotx pailazoa aurreko edizioan Andoaingo kaleetan korrika aritu zen.



Urnietako haurrak aurreko edizioko Korrika txikian.

Euskararen aldeko
lasterketa laster iritsiko
da eskualdera;
atarikoak ostiral
honetan hasiko dira.

**KORRIKA 19 ATARIKOA
URNIETA**
Martxoak 6, ostirala
17:00 Haur-jolasak.
18:00 Mintzodromoa.
19:00 Talo eta sagardo postua.
19:30 Kontzertuak.

**KORRIKA 19 ATARIKOA
ANDOAIN**
Martxoak 6, ostirala
Bertso afaria Iruberrin:
Andoain-Lasarte.
Orain aste gutxi abiatutako de-
safioaren bigarren zatia.

**KORRIKA 19
ESKUALDEAN BARRENA**
Martxoak 21, larunbata
09:01 Aduna.
09:14 Andoain.
09:53 Urnieta.
10:19 Hernani.

Lanbide heziketa euskaraz



Lanbide Heziketako erdi
mailako eta goi mailako zi-
kloak euskara hutsean egite-
ko aukera dago Buruntzal-
dean.

[ESKUALDEA, 8-9. ORRIALDEAK]

Martxoak 8 eskualdean



**KOMUNIKAZIOA
HARREMAN
PERTSONALETAN**

Andoainen eta Urnietan kultur
jarduera ugari burutuko da
egun hauetan. Urnietan dago-
neko hasiera eman diote ziklo-
ari, eta Andoainen ostiral ho-
netan ekingo diote. Larunbate-
an izango da kalejira.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Elkarteen ereserkiak disko batean

Joxe Mari Oiartzabalen
zuzendaritzapean,
herriko elkarten
ereserkiak grabatu
dituzte.

Aurreko asteburuan Garate
Studios grabazio etxean herri-
ko elkarten ereserkiak graba-
tzen aritu ziren. Tartean ziren
maila handiko dozenaka musi-
kari eta herriko elkarteetako
danbor jotzaileak.

Hamazortzi kantu izango di-
ra denara, horietatik hamalau
herriko elkarte banari eskaini-
takoak. Horiez gain, beste lau
gehiago. Hauexek: Santa
Kruz Martxa, Andoaingo Ere-
serkia, Fernando Uribealgo
eta Gora Kale Txiki txaranga.

Diskoaren sustatzaileek, he-
rria sortu zeneko laugarren
mendeurrenean, hutsune bat
bete nahi izan dute diskoaren
argitalpenarekin.

[ANDOAIN, 10. ORRIALDEA]



Hainbat musikari izan zen aurreko asteburuan, diskoaren grabazioan.



Mont blanc bira

Martxoak 11, asteazkena
19:00. LEKAION

Hizlaria:
Zigor Iturrieta



GaztegunUrniet



Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnieta.org

EH Bildu eta PSE-EEren agerraldi bateratua



PSE-EEko Frutos eta Gonzalez; EH Bilduko Yurramendi eta Salsamendi.

Langardari buruz EAJ-PNVk egin zuen balorazioari kritika egiteko agerraldi bateratua egin zuten EH Bilduk eta PSE-EEK, aurreko ostiral arratsaldean. Oposizioa bi alderdiek ez zuten ondo hartu hedabide batean auziari emandako irtenbidea EAJren agintaldiko lehentasuneta-

koa zela adieraztea. "Oposizioatik egin den lana bereganatzea" leporatu diote gobernu ardura dituen EAJri. Eta errespetua eskatu zioten, "bai besteok eginiko lanari eta bai herritarrei". Langardarako sortutako batzordeak lanean jarraituko duela iragarri dute.

Karta jokoak eta irteera, Denda Berriko jarduerak

Denda Berri pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak bi jarduera antolatu ditu hila-bete honetarako. Eskualdeko karta joko txapelketari ekingo diote ostegun honetan, arratsaldeko 16:30ean bulegoan bertan.

Martxoaren 21erako irteera antolatu dute Errioxara. Santo Domingo de la Calzadara bisitaldia egingo dute, gidari baten laguntzarekin. Bazkaria 13:30etan egingo dute Hotel Valdevenadosen. Informazioa elkartean bertan.

Jokabide arbuigarria salatu du Udalak

Otsailaren 17an Egape ikastolako 2-3 urteko haurren gela kanpoaldeko itxitura hautsita agertu zen, eta berrezartzeak 1.752 euroko gastua eragingo dio Urnietako Udalari. Udalak dioenez, "norbaitek, nahita, parkeko hesiaren 68 ohol hautsi ditu eta Udalak egin beharko die aurre ekintza arbuigarri honek eragindako gastuei".

Konponketa berehala egi-

tea erabaki dute, izan ere, hesia egoera horretan egonda, jolas garaian haurrek azpitik ihes egin dezakete.

Udalak ohar bidez erabat arbuia du Egape ikastolako parkean gertaturiko txikizioa, "Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu erantzulea topatzeko; ez baita bidezkoa herritar guztiek gutxi batzuen burugabekeria ordaindu behar izatea".

Hitzaldia, filma, ikastaroa, afaria, antzerkia eta elkarretaratzea

Jarduera ugari Urnietan emakumeak ardatz hartuta

Emakumeen Nazioarteko eguna ospatzeko, egitarau oparoa aurkeztu dute Urnietan ere. Horretarako, Udalak ekintza ugari antolatu ditu martxoaren 4tik 8ra bitarte. Sustapena eta Ongizatea sailek antolatu dute aurtengo egitaraua: "Ekintza sorta nahiko zabala da eta espero dugu denen gustukoa izatea. Herritar guztiak animatu nahi ditugu bertan parte hartzera", azaldu zuten prentsaurrekoan Miren Martiarena Gizarte Zerbitzueta zinegotziak eta David Rosco Sustapen zinegotziak.

EMAKUMEA ETA KOMUNIKAZIOA, AURTENGO EDIZIOAN

Aste osoan zehar egingo diren jardunaldi hauek herritar orori zuzenduta daude; gazte, heldu, emakume zein gizonezkoek. Guztietan, emakumea izango da protagonista, baina aurtengai nagusi baten inguruan ari tuko dira: komunikazioa harreman pertsonaletan. Beraz, hitzordu guztiek emakumea eta komunikazioa izango dituzte ardatz.



Miren Martiarena Gizarte Zerbitzueta zinegotzia eta David Rosco Sustapen zinegotzia.

EGITARAUA

- **Hitzaldia:** "Emakumea, estereotipoak eta komunikabideak", Oihana Etxebarriaren eskutik. 18:00. Lekaio. Martxoak 5, osteguna.
- **Zinema:** "Violette". 22:00. Sarobe. 4 euro. Martxoak 6, ostirala.
- **Ikastaroa:** "Komunikazioa harreman pertsonaletan", Pepa Bojo psikoterapeutaren eskutik. 15:00. Sarobe. Ostiralero. Martxoak 6-ekainak 12.

- **Afaria:** Emakumeen afaria. Afaria eta dantzagarriak 30 euro. 21:30. Oianume. Martxoak 7, larunbata.
- **Antzerkia:** Modelo "Klown-trapublizitarioa", Virginia Imazen eskutik. 18:00. Sarobe. Martxoak 8, igandea.
- **Bilkura:** Elkarretaratze instituzionala emakume langilearen egunean. 19:30. San Juan plaza. Martxoak 8, igandea.

Ikuskizuna Saroben, igande honetan eguerdiko 12:00etan hasita

Printze txikia, igandean

Printze Txikia ikuskizun eza-gun eta handia da, kasu honetan artista txiki askoren parte hartzearekin taularatuko dena.

Txama txama abesbatzako ki-deak dira oinarrian ikuskizuneko protagonista nagusiak, 11 eta 19 urte artekoak. Sar-

betik adierazi dutenez, "magiaz beteriko antzezlan musikala da, helduak zein haurrak hunkitzen dituen".

Zona 2 txakurrekin lagunduriko Ehiza xeheko txapelketa

Xabi Amantegi, txapeldun

Otsailaren 21ean Usobelar-tzan Zona 2 txakurrekin lagunduriko Ehiza xeheko txapelketa izan zen. Bertan ehiza jarduera hartako hainbat ehiztarik parte hartu zuen. Tartean, Hernani, Astigarraga, Lasarte, Andoain eta Urnietako ehiztariak. Santa Kruz elkarteak **Xabi Amantegi** izan zen txapelduna, 4 faisai eta 4 eperrekin (804 puntu). Bigarren, Ontza elkarteak **Axier Gaztañaga**, 4 faisai eta 3 eperrekin (603 puntu) eta hirugarren Gure Izarra elkarteak **Patxi Tapia**, 3 eper eta 2 faisairekin (503 puntu).



Patxi Tapia, Xabi Amantegi eta Axier Gaztañaga sari banaketa ekitaldian.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

OSTIRAL HONETAN URNIETAN EUSKARAREN ALDEKO OSPAKIZUNA

Korrika badatorrela iragartzeko ekitaldi sorta

Aurtengo Korrika Urnietan barrena igaroko da martxoaren 21ean. Orduan pasako baita lasterketa herritik. Eguna iristear dagoela iragarri eta lasterketa girotzen hasteko, Korrika batzordeak hain-

bat hitzordu antolatu ditu ostiral honetarako. Euskararekin lotutako hitzorduak izango dira, nola ez, ikastetxeen parte hartzearekin. Eta martxoaren 18an Korrika txikia egingo dute, kalez kale.

Korrikaren edizio berria ospakizunez beterik dator Urnietara. “Korrikari ongi etorria ematea eta jendea berotzen hastea dira ospakizun hauen helburua”, dio **Aize Otaño** Urnieta eta Astigarragako Korrika arduradunak. Gainera, festatxo honekin korrika aterako direnen parte hartzea handitzea gus-tatuko litzaioke.

Ostiral honetan hitzordu ugari izango dira, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Poxta Zahar taldeak antolatutako haur jolasak egingo dituzte lehenik eta behin. Horren ostean, 18:00etan, mintzodromoa egingo da. “Mintzodromoa euskaren erabilera bultzatzeko gune bat izango da, gai ezberdinen inguruan euskaraz hitz egiteko. Euskara ikasten ari direnentzat interesgarria izango da, hizkuntza praktikan jartzeko eta jende berria ezagutzeko balioko baitie”.

19:00etan AEK-ko kideek taloak egingo dituzte eta 19:30etik aurrera, Itzartu eta 2-shock taldeek girotuko dute San Juan plaza. Eguraldi txarra eginez gero, jarduera horiek guztiak Egapeko frontoian egingo dituzte.

Egunean zehar, herria apainduko dute, Korrika eguna aurkeztuko dute eta antolatutako ekintzez gain, arropa postua jarri eta diru bilketa ere egingo dituzte.

KORRIKA TXIKIA MARTXOAREN 18AN

Martxoaren 18an herriko ikastetxeekin Korrika txikia antolatu dute. Egape, Salesiarrak eta Presetacion de Maria ikastetxeak elkarrekin arituko dira korrika. Goizeko 11:00etan Egape ikastolatik hasiko dira; Presentacion de Maria ikastetxera abiatuko dira, San Juan plazatik pasa eta Salesiarretara iritsiko dira. Ondoren, plazara itzuli eta bertan amaituko dute ibilbidea.

19. ^{AEK}korrika EUSKAHALDUN! Urepeletik Bilbora • 2015eko martxoaren 19tik 29ra



Iaz bezala, Korrika txikia Urnietan ibiliko da kalez kale.

“Mintzodromoa euskaren erabilera bultzatzeko gune bat izango da, gai ezberdinen inguruan euskaraz hitz egiteko. Euskara ikasten ari direnentzat interesgarria da”

Aizek azaldu duenez, plazara iritsitakoan, Udalak aurkezpento bat egingo du eta ikastetxe bakoitzeko pare bat hurrek bertso bana kantatuko dute. Amaitzeko, Korrikaren aurtengo kantuekin dantza egiteko aukera izango dute guztiek elkarrekin.

KORRIKA MARTXOAREN 21EAN

Martxoaren 21ean, larunbatarekin igaroko da Korrika Urnietatik, goizeko 10:00etan. Egunerako bertarako ere hainbat ekintza antolatzen dabilta. “Korrika pasa aurretik, agian, gosaria egingo dugu; eta korri-



Aize Otaño Urnieta eta Astigarragako Korrika arduraduna.

ka egin ostean, poteoa eta bazkaria. Oraindik horretan gabilta”, argitu du Aizek.

Kilometroen salmentan burubelarri dabil orain arduraduna. Urnietak bost kilometro ditu eta oraingoz, erraza egiten ari

zaiola aitortu du. Herriko ikastetxeek, Kirol elkarteek eta Udalak erosiko dituzte, esate baterako, kilometro horiek.

Korrika Andoaindik iritsiko da, Ergoien auzora. San Juan kaletik plazara itzulia egin eta

EGITARAUA

MARTXOAK 6, OSTIRALA KORRIKA FESTA

Eskualdeko AEK, Urnieta-ko eragileekin elkarlanean, hots, Urnietako Udala, Egape, Salesiarrak eta Presentacion de Maria ikastetxeak eta Poxta Zahar taldea.

17:00 Haur-jolasak.

18:00 Mintzodromoa.

19:00 Talo eta sagardo postua.

19:30 Kontzertuak: Itzartu eta 2-shock taldea.

Eguraldi onarekin San Juan plazan, euriarekin Egapeko frontoian.

MARTXOAK 18, ASTEAZKENA KORRIKA TXIKIA

Egape, Salesiarrak eta Presentacion de Maria ikastetxeak elkarrekin.

17:00 Ibilbidea: Egape ikastolatik Presentacion de Maria ikastetxera, eta San Juan plazatik Salesiarretara.

MARTXOAK 21, LARUNBATA KORRIKA

Andoaindik iritsiko da, Ergoien auzora. San Juan kaletik plazara itzulia egin eta Aranzubi kalea zeharkatuz, Idiazabal kalera abiatuko da. Herria igaro eta Hernaniko bidea hartuko du Korrikak.

09:01 Aduna.

09:14 Andoain.

09:53 Urnieta.

10:19 Hernani.

Aranzubi kalea zeharkatuz, Idiazabal kalera joango da. Bertatik herria igaro eta Hernani aldera abiatuko da.

Martxoaren 19an Urepeletik abiatuko da hemeretzigarren edizioa, Bilbon amaitzeko.

ARAZO FISIKO EDO KOGNITIBOA DUTEN IKASLEEI IRAKURTZEN ETA IDAZTEN LAGUNTZEKO APLIKAZIOA GARATU DUTE

Bizimodua hobetzeko aplikazio informatikoen egilea

Jorge Garcia andoaindar gazteak teknologia berriak lantzeko Limbika enpresa sortu zuen, orain hiru urte. Giza komunikazioa errazteko asmoz, tablet-etan erabilgarri diren aplikazioak diseinatzeko di-

tuzte. Orain gutxi, Europatik beka jaso du, 'LiterALLcy' egitasmoa gara dezan: arazo fisiko edo kognitiboa duten ikasleei irakurtzen eta idazten laguntzeko aplikazioa du ardatz.

Azalduko al zeniguke zertan datzan Europako erakundeetatik beka jaso duen egitasmoak?

Jorge Garcia: Down sindromea, autismoa, garun-paralisia edo bestelako mugaren bat daukaten Europako edozein ikasleri irakurtzen edo idazten laguntza eskainiko dion tresna diseinatu nahi dugu. Horretarako, tablet-etan erabiltzeko aplikazio jakin bat sortuko dugu, Android sisteman. Lituania eta Frantziako beste eragileekin koordinatzea egokituko zaigu.

Aldi berean, Elhuyarrek ere elkarlanean jardungo dugu; izan ere, gure asmoa ahots sintetikoa euskaraz ahalbidertuko duen aplikazioa garatzea da, tabletak euskaraz ere egin dezan alegia, erabiltzaileari komunikazioan laguntzeko.

Bi urteko epean garatu behar da egitasmo guztia, eta niri dena koordinatzea egokitzen zait. Ingeniari programatzaile diren beste bi lankide eta hiron zeregina, aplikazioa diseinatzea eta programatzea izango da.

Zer zeneukan buruan Limbika enpresa sortu zenuenean?

J.G.: Teknologia berriak giza kiaren komunikazioaren mesedetan jartzea. Horretarako, galderez osatutako printzipio jakin bat hartzen dut gidari, horiei erantzuten saiatzeko. Alegia, eguneroko bizitzako zereginiei erantzuteko zein trebezia dituzu eta zeintzu ez? Berreskura ditzakegu orain ez dituzun trebezia horiek? Kanpotik zuri zerbait (teknologia) itsasiz gero, ez dituzun trebezia horiek ordezkatzeko lizkizuke? Esaterako, lehengo astean Gipuzkoako Aspace elkartearekin jardun nuen. Garun-paralisia jasanda gurpildun aulkian ibiltzen den mutil bati autonabegazio sistema jarri diogu. PictoPlus delako aplikazioa bere gorputzera egokitu dugu; hots, akzesibilitate sistema pertsonalizatua



Jorge Garcia, eskuan duela Ondarreta ikastetxeko ikasle bati egokitu berri dion tableta. Garun-paralisia dauka ikasleak, eta tablet horrek daraman aplikazioaren erabilerak komunikazioa erraztuko dio.

egin diogu. Hartara, soilik boi bat sakatuz, izugarri irabaziko du komunikazioan. Azken batean, kanpotik jarri zaion tresna bati esker, funtzionalagoa izango da bere bizitzan.

Zer da PictoPlusa?

J.G.: Geuk garatu dugun aplikazioa da. Azken batean, aho-tsik ez dutenei edo hizkuntzan arazoak dituztenei aurrean dituzten beste pertsonekin gutxieneko komunikazioa lor dezaten laguntzen dien tresna bat da; aukera hori tablet-aren bidez eduki dezakete eskura. Irudietan eta argazkietan oinarritzen da aplikazioa. Pictograma deitzen zaie irudiei. Giza-kiak, eguneroko bizitzan bereak dituzten ekintzak edo emozioen mundua islatzen dituzte irudi horiek.


Gaitasunen bat falta duten pertsonekin aritzen zarete lanean. Prestakuntza pertsonala behar duzue, teknologi berrietan adituak izateaz gain....

J.G.: Noski, ezinbestekoa da

prestaketa profesionala. Nik ikasketak egin ditut gerontologia sozialean eta errehabilitazio neurologikoan, eta azken arlo horretan sei urte egin ditut lanean, auto istripua edo iktusa jasan duten helduekin.

Hori bai, gu ez gara orojakileak eta komunitate oso bat daukagu inguruan: izan pedagogoak, edo izan terapeutak, irakasleak edo gurasoak. Denok ere elkarlanean jarduten dugu, modu batera edo bestera.

Esaterako, iktusa jasan duen



Jorge Garcia bere lankideekin, Donostian duten egoitzan.

pertsona heldu batek erabil al ditzazke zuen aplikazioak...

J.G.: Buru eta gorputzeko zauriak zein aldetan eta zenbateraino eragin dioten..., ezaugarri batzuk ikusi beharko lirateke lehenbizi, baina, zergatik ez, egokitu ahal izango genioke tableta. Segituan erabiltzen ikusiko luke, eta tresnak zorientsu egingo luke. Egundoko aurrerapena sentituko luke, komunikazioaren arloan batik bat.

Munduan zehar zabiltza azken aldian, hezkuntza arloko jarduerak

“Komunitate oso bat daukagu inguruan: izan pedagogoak, edo izan terapeuta, irakasle edo gurasoak. Denok ere elkarlanean jarduten dugu, modu batera edo bestera”

naldietan-eta hitzaldiak ematen....

J.G.: Oso urduri jarduten nuen hasieran. Baina arian arian, gero eta hobe moldatzen naiz. Mexikon, esaterako, mila entzuleren aurrean jardun behar izan nuen. Normalki entzuleak pedagogoak, irakasleak, gurasoak... izan ohi dira. Azken batean, arlo zehatz batean nik daukadan jakintza transmititzen saiatzen naiz, eta batik bat, lasaitasunaren mezua zabaltzen diet. Izan ere, 50 urtetik gorako irakasle askok gutxi erabiltzen dute teknologia eta kosta egiten zaie beren lan dinamika aldatzea.

Bizi kalitatea hobetzen diezue praktikan ikasle eta pertsona askori zuen programa eta aplikazioekin. Asebetetzen duen lanbidea behar du izan zuena...

J.G.: Egia da esker oneko lana dela gurea. Tarteka, emailak iristen zaizkigu lantokira, eskerrak emanez bihotzez. Diseinu lanetan jarraitzea motibatzen gaituzte mezu horiek. Esaterako, lehen aipatu dudana Aspaceko mutila irribarrez ikusteak...

Ni neu, lehendik ere ibilia nago terapeuta bezala ezgaitasunen bat daukaten pertsonekin eta oraingo lanbide honek pertsona horiekin eguneroko kontaktuan egoteko aukera ematen dit. Horrexegatik, nahiko ohitua nago erabiltzaileen iritzia eta sentimenduak entzutera. Akaso nire bi lankideak ez daude horren ohituak, eta gehiago hunkitzen dira bidaltzen dizkiguten email horiekin.

Triana elkartearen eskertza Andaluziako eguna igarota



Triana taldeko txikienak, aurreko larunbateko saioan.

POSTONTZIA: TRIANA ELKARTEA

“Triana elkarteak Andaluziako egunean gerturatu ziren bisitariei eta agintari esker ona adierazi nahi die. Denek

erakutsitako errespetua nabarmendu nahi dugu. Dantza taldeen artean Violetas taldeak eta txikitxoek taldeak arrakasta handia izan zuten. Datorren urtera arte!”

Errepublika gogoan

Oroimen historiakoaren alde PCEko kideek eratu zuten Belabieta kolektiboak Errepublika eta 36ko Gerra jorritzen duen erakusketa ikusgai jarriko dute, datorren asteko asteartean hasi eta ostirala bitarte. “Komunisten taberna” gisa ezagutzen den egoitzan

jarriko dute, Pio Baroja kalean. Garaiko egunkari eta komikien azalek eta Andoainen errepresioa jasan zuten pertsonen argazkiek osatzen dute erakusketa. Erakusketaren ordutegia arratsaldeko 18.30etatik 20:30etara izango da.

“Errepresioa ez da bidea, Karlos askatu”



POSTONTZIA: KARLOSEN LAGUNAK

“Polizia Nazionalak, Italiako poliziarekin koordinatuta, Otsailak 25 asteazken goizean, Karlos Garcia atxilotu zuen Erroman (Italia).

Estatu Espainiarrak atxiloteta politikoen hariari eusten dio, irtenbidea eta muin politikoa ukatuz behin eta berriz. 1997an atxilotu zuten Karlos, Caja Laboralaren bulegoari sua ematearen akusazio faltsu bat oinarri. Carabancheleko espetxean hilabete batzuk pasa ostean, epaiketaren zain kaleratu zuten 2000ra bitartean.

Epaiketari, oinarririk gabeko testigantza baten aitzakia erabiliz, non “gauez eta estalita zegoen pertsona bat us-tez Karlosekin nahastu zuten”. Muntaiak poliziala age-

rikoa zen. Epaia 16 urteko espetxe zigorra izan zen. Garai hartan, Estatu Espainiarrak zigor mailak neurri “eredugarri”an kokatu zituen hainbat euskaldunen kaltetan, geroztik ezagutu dugun errepresio gorakadaren adierazgarri.

Komunikabideetan atxilotetari buruz azaldu denaren arabera, muntaiaren kiratsa besterik ez dugu antzematen berriro ere, filtrazio polizialari men eginez. Akusazio faltsuak eta gezurrak gehituz, atxilotetaren salmenta iruzurtia borobildu nahi izan dute.

Elkartasuna eta salaketa publikoaren hariari ekitea da gure bidea. Oinarri politikoa duen gertakizun honi, konponbide politikoa aldarrikatzearekin batera”.

Ezustekoa baina merezitako omenaldia jaialdiko antolatzaileei

Piano jaialdiko artistak

Aurreko igandean amaiera eman zioten piano jaialdiari, Seiasleko antolatzaile taldearen lanari gorazarre eginez. Andoain pianoaren hiri-buru bilakatu da egun hauetan, Andoaindik kanpoko ehunka ikasle eta familia hurbildu baitira. Partaide guztientzat ere, pianoan jarrita, erronka handia izan da jendaurrean aritzea. Urtez urte jaialdia bikaina izaten bada, aurtengoa berezia izan da hamargarren edizioa izatean. Eta hori nabarmen antzeman zen jaialdiaren amaieran piano jaialdiko sustatzaileei eginiko omenaldian. Myriam Ulanga, Txitxu Castro, Tere eta Isabel Laspiur eta Audra Almanaytite hunkituta igo ziren taula gainera. Ezusteko omenaldia ondo merezia dute. Zorionak! Bejondeizuela.



Zutik: Haizea Arnaiz, Jone Otxandorena, Oihane Ulanga eta Maddi Bekarte. Belauniko: Mattin Yusta, Leire Nuñez, Leire Iturralde, Ioritz Jimenez, Iune Miner eta Nahia Sarasola.



SOFIA BORROKAN ARI DA “B” DOKTOREAREN AURKA

“B” kontabilitatea, BEZik gabeko salmentak kanpainak eta “black” txartelak eguneroko logia ditugun honetan, Sofia ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.

Kamera ezkutuaren bidea

◀ Sofia Pérez (Donostiako taxilaria)

“A” gizartea lortzeko
ZATOK EKONOMIA GARDENERA
Ausarten eta super-ausarten bila ari gara
www.ekonomiagardena.eus
#ekonomiagardena

Aldundiak eta Udalek finantziazioa hizpide



Olano Ogasun zuzendaria, Carrere eta beste zenbait alkaterekin batera.

Gipuzkoako udalak orain dela lau urte baino askoz egoera hobean daudela eta zama finantziarioa arintzea lortu dutela adierazteko agerraldia egin zuen Foru Aldundiko Xabier Olano Ogasun zuzendariak, Ana Carrere alkatea alboan zuela. Xabier Olano Ogasun zuzendariaren esanetan, "legealdi hasieran erronka kolektibo bati aurre egin genion. Udal kontuen onbideratze ariketa itzela egin dute udalek". Modu horretan, 2014an likidazio positiboa izatea lortu dute 2014an (2007tik lehen aldiz).

Andoaingo alkateak, Al-

dundiaren joera positibo hori irudikatzen zuela eta, agerraldian parte hartu zuen: "2015eko urte hasiera hone-tan, askoz datu positiboak eman ditzakegu Andoainen. Ia defizita desagertzera. Zailtasunekin jarraitzen dugu; likidazioarekin arazoak ditugu, bai, baina orain argia ikusten dugu tunelaren amaieran. Azken notizia onena, 2014ko foru funtsetik aurtien ez dugu ezer itzuli behar; alderantziz, Aldundiak diru gehiago emango behar dio Andoaingo Udalari, 84.000 euro gehiago. Primerako albistea", azaldu zuen.

PSE-EE alderdiak gobernu taldeari kritika egin dio



Maidier Lainez.

Maidier Lainez oposizioko buruak agerraldia egin zuen amaitzeaz dagoen agintaldia-ren balorazioa egiteko. So-

zialistentzat hutsaren hurrena da Bilduk zuzentzen duen gobernu taldearen jarduna: "lau urteotako gertaerarik larriena, gobernu taldeak sarea eta gehiengo osoak lortzeko erakutsi duen gaitasun eza izan da. Gaitasun falta horrek Andoain herriaren garapena oztopatu du".

Bilduri gardentasun falta leporatzen diote, "oposizioan gaudenok gai askoren inguruan prentsa bidez edota herritarrek batzarraldietan egindako agerraldien bidez jakiten ditugu". Beste Andoain bat posible dela diote.

EAJ-PNV alderdiak ere gobernu taldea jomugan du



Mari Jose Izagirre.

Leitzaran eta Oria ibaietan hobekuntza lanak ahalik eta azkarren egiteko eskatzen zuen EAJ-PNVk: "Udalak ez dio jaramonik egiten Oria eta Leitzaran ibaiak garbitu eta atontzeko eskaerari". Agintzeko moduari kritika egin diote ohar berean.

Arrisku handiko egoera otsailaren 27an, euriteen ondorioz

Lubizi ikusgarria Otieta parkearen inguruan



Lubiziaren irudi ikusgarria.

Euriteak lur-jauzi ikusgarria eragin zuen Leitzaran ibaiaren ertzean, Otieta paraje inguruan. Eta lubiziaren eraginez, Errekondo etxeko familiak etxetik atera behar izan zuen suhiltzaileen laguntzarekin.

Familiak ezusteko galanta hartu zuen goizeko 09:00ak aldera, bertakoa den Xabier Ormazabal aitortu bezala: "Soinu galanta entzun dugu, eta kanpora atera garenean, mendi gainetik etorri den lurra errekarar erorita ikusi dugu. Lur horrek errekan presa efektua egiten zuela konturatu gara, ur emaria trabatuz. Halako batean, errekan urek presa gaingitu eta egundoko ur piloa joan da errekan behera".

Etxean bizi diren familiako hiru kideek ezusteko handia bizi arren, onik irten ziren. Herrigunean bertan, senitartekoen etxean, pasa beharko dituzte hurrengo egunak, arrisku



Xabier Ormazabal eta etxeokak baserrian ziren lubizia gertatu zenean.

egoera gaingitu dela ziurtatu arte.

Unanibia inguruan garbiketa lanak egiten ari ziren udal langileek, bestalde, lubizia gertutik jarraitu zuten. Langileak ikusitakoa sinestu ezinik zeuden,

"derrepentean, kasik urik ez zekarrela sumatu dugun Leitzaran ibaian. Handik segundu gutxira, ordea, tsunami txiki baten antzekoa heldu da. Egundoko ur emaria, eta zikin-zikina, gainera, lokatzez beteta".

Rodolfo UBEDA BRIANZO jauna,

Jon Ander Ubeda Goikoetxea lankidearen aita.
Tolosan hil zen, otsailaren 27an, 82 urte zituela.

Gure emariaren ubera
dakusat pozez,
arroila, sakan eta zelaietan
behera doala;

burubideen iritzi
eta sen zorrotzez,
bihozminaren maitasun
eskuzabala.

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Beterri, 2015eko martxoak 2.



ELENA LERTXUNDI KALEJIRAN OMENDUKO DUTEN EMAKUMEAKO DA

“Martxoak 8 emakume” kalejira, larunbat honetan

Larunbat honetan eguerdiko 12:00etan ospakizun bilakatu den kalejira egingo dute Andoaingo kaleetan barrena, zeineanalar ezberdinetan nabarmendu diren hainbat emakumek eramango duten leku-

kotza. Horien artean, osasun alorrean lan egiten duen Elena Lertxundi nabarmenduko dute. Osasun etxeko harreraren egiten du lan, ohi bezala, jokabide atsegina erakutsiz.

Andoaingo anbulategiko langilea da Elena Lertxundi. Jendearentzat harrera gunean aritzen da, arratsaldean. Elena 1962ko abenduaren 30ean jaio zen. Egun berezia inondik ere. Ondo gogoan dauka egun horretan etxean gertatutako pasadizoa: "Esaten didatenez, ama (Sorkunde Etxezarreta) estu-estu zegoen etxeko ohean, eta bien bitartean, On Ramon Dorronsoro medikua eta nire aita (Jose Luis Lertxundi), balkoian irratia pega-pega eginda egon omen ziren. Biak bertsozale porrokatuak izanik, egun horretan, Euskal Herriko bertsolarien txapelketako finala zeukaten irratitik!"

Lau ahizpa dira etxean, hiru-garrena bera. "Aitak ikasketak egitera bultzatu gintuen, eta neuk artearekin lotutako karrerari heldu nion. Azken urtean baina, etxe batera zerbitzera joatea erabaki nuen. ETBn kazetari den Maria Corral, nirekin hezitakoa da". Halako batean, Osakidetzako oposaketetan aurkeztuta animatu zuten bertan lan egiten duten ahizpek. Aurrenekoan atera zuen postua.

EZUSTEKO GALANTA

Ez zitzaion burutik pasa ere egiten bera hauta zezaketenik martxoaren 8ko ekitaldirako. "Udaletxetik hots egin zidaten, eta hasieran ez nuen ulertzen zertarako zen; Udal hauteskundeetako konturen bat izango zelakoan... Poliki poliki joan nintzen barneratzen. Nonbait, nire izena jarri zuten hautagai gisa, anbulategiko harrean herritarrei segurtasuna eta konfiantza ematen omen die-dalako; arazoak irribarre batekin konpontzen saiatzen omen naiz. Ez dakit zer esan, bada!". Lantokian, antzeko aipamen pertsonalen bat edo beste eduki izan du aurretik ere Elenak, eta aitortzen du bihotzarentzat *pomadaren* gisakoak direla keinu horiek. "Iaz etorri zitzai-



Elena Lertxundi, Andoaingo anbulategian, herritar batek eskaini zizkion bi bertsoak eskuan dituela.

“Anbulategiak eta leku ofizialak erderarekin lotzeko joera daukagu euskaldun askok oraindik, eta euskarara alda dezaten saiatzen naiz”

dan emakume bat etxean idatzitako bi bertso eskuan zituela. Gozo atenditzen omen nuela, eta era horretan eman nahi izan zizkidan eskerrak! Ederki emozionatu nintzen. Bertsoak marko batean bildu eta etxeko horman zintzilikatuta dauzkat".

SIKOLOGOAREN FUNTZIOA

Elena ohartzen da anbulategian ilaran daudenetatik, batzuk berarengana jo nahi izaten dutela. Herrikoa naiz eta askok ezagutzen naute. Horrek konfiantza emango die, ikusten denez. Zahar batzuk etortzen zaizkit esanez badakitela zein familiatakoa naizen".

Lanpostu horretan zintzo jarduteko enpatia eduki behar dela ezeren aurretik, dio. "Anbulategira, jendea, osasun arazoak dauzkalako etortzen da, ez gogo onez. Kezkati dator, eta gainera, arrotz egiten zaiz-

kion tramiteak bete arazten zaizkio maiz. Horien tokian nire ama irudikatzen dut, eta halaxe hartzen saiatzen naiz. Azken batean, harrera leihatilaren barrukaldean gaudenok ere herritarrek gara, eta guri ere gustatzen zaigu zakarkeririk gabeko tratua".

Herritarrekin umorea erabiltzea gogoko duela dio Elenak: "aurrean dudana ezaguna egiten bazait, aisa etortzen zait ziria sartzeko gogo. Hau eta beste ordaindu beharra daukatela, botikak kenduko dizkietela... eta antzekoak esaten dizkiet. Sinetsi egiten dute aurreneko entzunaldian; konturatu diren arte. Normalean, estimatzen dute informaltasun puntua jartzea horrelako leku serio batean".

Euskararen erabilerarekin erne ibiltzen da Elena. "Anbulategiak eta leku ofizialak erderarekin lotzeko joera daukagu euskaldun askok oraindik, eta euskarara alda dezaten saiatzen naiz".

Herrian bertan jendaurrean lan egiteak bere alde onak eta txarrak dituela azpimarratzen du Elenak. "Donostiako ospitalean egiten nuen lan, eta Andoainera aldaketa eskatu nuen

orain lau urte. Herrian aritzea ez zitzaidala komeni esaten zidaten, ezaguna izateak kalte egingo zidala, alegia. Baina oso pozik nago Andoainen, egia esanda".

Lanorduez kanpo, bere ogibidea zein den gogorarazten diote zenbaitek, "senarra ere batzuetan aspertu egiten da nirekin kalera irteten denean. Batekin dela, bestearekin dela, denekin hizketan hasten naiz eta askok anbulategiko kontuak aipatzen dizkidate. Etxera ere deitu izan didate, errezetaren bat dela edo ez dakit zein tramite dela, mesedea eskatuz".

Sikologoarena egitea egokitzuten zaie, maiz. "Adinean aurrera diren batzuk bere historia kontatzen dizute; kosta egiten zaizu jakitea zer nahi duten, eta ulerkor jokatu behar da horiekin".

ESTUALDIKO LANPOSTUA

Jendaurrekoarekin estresa eta estualdia bizitze hori, larrutan bizi du Elenak. "Lo nagoela, ametsetan, anbulategiko telefono txirrria sentitzen dut

“Larunbat honetako kalejiran berehala hunkituko naizela iruditzen zait”

noiznahi. Lagun edo familiarraren batek deitzen didanean, "Andoaingo osasun zentroa, arratsaldean" ateratzen zait barru-barrutik. Bestalde, esan beharra dago Osakidetzan informatizatua dagoela dena; oso kontrolatuta daude gure mugimendu guztiak. Egin kontu: badakite egunaren amaieran zenbat dei erantzun ditugun, zenbat jende atenditu aurrez aurre...".

HUNKITZEKO, ERRAZTASUNA

Malko errazekoa dela dio Elenak. "Martxoak 8ko ekitaldian berehala hunkituko naizela iruditzen zait. Iaz Anabel emagina nabarmendu zuten, eta berak zera gomendatzen dit: egon zaitetz lasai, Elena, ederki pasako duzu eta". Beste lankideek, berriz, adarra jotzen didate. Dena autoan egiten dut, eta ez zaie iruditzen gai izango naizenik kalejira oinez egiteko...".

“Emakumeak musikan, lehena eta oraina”

Kontzertua Basteron

Ostiral honetan, gaueko 21:30etan hasita, jaialdia egingo dute emakumeak eta musika ardatz hartuta. Dantzariak, musikariak eta abeslariak igoko dira taula gainera. Eta hainbat testigantzari ere tartea eskainiko diote. Horien artean honako emakumeena: Begoña Tolaretxipi, Pilartxo Txopeitia, Maite Oiartzun, Virginia Ulanga, Saioa Lopez, Klaudia Alduntzin. Artisten artean, batzuk aipatzearren, Ariane Kamio, Myriam Ulanga, Toñi Hurtado, Ainhoa Elizondo eta Aran Mujika.



LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAN ETA LANTOKIKO PRESTAKUNTZAN EUSKARA ERABILTZEKO AUKERA DAGO

Lanbide Heziketa euskaraz, aukera aparta eskualdean

Lanbide Heziketako erdi mailako eta goi mailako zikloak euskara hutsean egiteko aukera dago Buruntzaldean. Andoainen, Urnietan, Usurbilen eta Hernanin dago, hain zuzen, D ereduan ikasteko auke-

ra. Matrikulazio datuak, gainera, baikor izateko modukoak dira. Urtetik urtera gehiago dira erdi mailako eta goi mailako zikloetan euskaraz ikastea aukeratzen dutenak.

Euskaraz ikasi eta lan munduan euskaraz ari-
tu nahi duenari erraz-
tasunak eman nahi diz-
kiote ikastetxe hauek;
horregatik, hainbat ziklo D ere-
duan emateko apustua egin dute.
“Helburua argia da: euskaraz ika-
si nahi duten ikasleei aukera
hori ematea”, dio **Ainitze Blanco**.
Hernaniko institutuko euskara-
ren normalkuntzan lanean dihar-
du eta dioenez, “Euskal Herrian
egonda, euskara bultzatu eta
indartu nahi badugu, ezinbeste-
koa ikusten dugu Lanbide Hezi-
keta ere euskaraz ikastea”.

Ikasketak euskaraz egiteak,
gerora lan munduan euskaraz
aritzea laguntzen die. Honen-
bestez, lan mundua euskara-
tzearen erronka ere hartu dute
ikastetxeek. “Askotan pentsa-
tzen da lan mundua erdalduna
dela, baina ikasleei erakutsi
nahi diegu ez duela zertan hala
izan”. Horretarako, lantokiko
prestakuntza euskaraz egin de-
zaten saiatzen dira, ikasleak
enpresetara joaten direnean
euskara ere erabili dezaketela
ikusteko.

Hernaniko Seiher enpresan,
esaterako, lehenengo hizkun-
tza euskara izaten saiatzen di-
ra. Bezero asko kanpotarrak
dituztenez, haiekin gaztelaniaz
egin beharra daukate, baina
bestela, barne komunikazioa
euskaraz izan ohi dela dio **Lei-
re Gonzalez** idazkariak: “Lan
munduan euskaraz aritzea lan
motaren eta merkatuaren ara-
berakoa da. Dena den, euska-
raz dakigunok euskaraz egiten
dugu; baita praktiketara etor-
tzen diren ikasleekin ere”.

Gainera, oso garrantzitsua
iruditzen zaio gazteek ikaske-
tak euskaraz burutzea: “Ziklo-
ak euskaraz egitea lagungarria
da ikasleentzat. Lan munduan
badaude hitz tekniko batzuk,
euskaraz ikasi ez badituzu,
ondoren erabiltzeko zail dire-
nak. Gainera, gure hizkuntza
eta gure kultura denez, lan
mundura ere eraman behar



Ainitze Blanco Hernaniko institutuko euskararen normalkuntzarako arduraduna.

da”. Modu honetara, aukera
dutenek behintzat, lanean eus-
kara erabili daitekeela ikusten
dute.

Hala ere, ez da denen kasua
hori izaten; praktikatan euska-
ra erabiltzea edo ez, bertako
langileen arabera ere izaten

baita. “Guk, ikastetxe bezala,
D ereduko zikloetan lantokiko
prestakuntza guztiak euskaraz
eskaini beharko genituzke.
Zer gertatzen da? Ikastetxetik
kanpoko modulo bat izanda,
ez dagoela gure esku”, dio Ai-
nitzek.



Leire Gonzalez Hernaniko Seiher enpresako idazkaria.

BURUNTZALDEKO IKASTETXEETAN ERDI MAILAKO ZIKLOAK

2005-2006 ikasturtea:

Izena emanda: 336 ikasle.
B+D ereduak: 183 (%54,5).

2014-15 ikasturtea:

Izena emanda: 379 ikasle.
B+D ereduak: 210 (%55,4).

GOI MAILAKO ZIKLOAK

2005-2006 ikasturtea:

Izena emanda: 776 ikasle.
B+D ereduak: 254 (%32,7).

2014-15 ikasturtea:

Izena emanda: 1.046 ikasle.
B+D ereduak: 566 (%54,1).

Praktikak egin dituztenen lekukotza

INKESTA

- 1 Euskaraz ikasteak garrantzia al du zuretzat?
- 2 Zertan lagundu dizu euskaraz ikasteak?
- 3 Zer moduzko esperientzia izan da lantokiko prestakuntza euskaraz egitea?

Jon Urretabizkaia

Ikasketak: Erdi mailako Insta-
lazio Elektriko eta Automati-
koak, Urnietako Salesiarretan.
Praktikak: Seiher Img Siste-
mas Electricos S.L

1. Bai, handia. Betidanik euskaraz hitz egin eta ikasi izan dut eta orain ohitura hori aldatzea izugarri kostatuko litzaidake.
2. Hiztegiko hitz asko ikasi ditut erreminta eta material aldetik; baita lan munduan euskaraz moldatzen ere.
3. Ona, gustura aritu nintzen.



Jon Urretabizkaia.

Giroa oso ona zen lanerako eta lankide gehienekin euskaraz aritzen nintzen. Ama hizkuntzan beti errazago aritzen da bat. Gainera, euskaraz ikasita hiztegia aberasten da. En-



Eneko Elozegi.

presa munduan euskara entzutea geroz eta arruntagoa den arren, atzetik eskoletan egiten duten lana ezin da galdu. Lanean guk ez badugu euskaraz egiten nork egingo du...

Eneko Elozegi

Ikasketak: Goi eta erdi mailako zikloak, elektrizitatean. Urnietako Salesiarrak ikastetxean. Praktikak: Electricidad JNA S.Coop eta Talleres Electricos Andoain.

1. Bai, nire ama hizkuntza euskaraz delako eta erdaraz eginez gero zailtasunak ikusten ditudalako.
2. Ulermenean eta adierazteko garaian errazago egiten zait euskaraz aritzea.
3. Ona, gauza berriak ikasi ditudalako. Dena den, ez ditut guztiz euskaraz egin, langile bat baino gehiagorekin gaztelaniaz hitz egin beharra nuelako. Nire ustez, ez da abantaila bat, eskubide bat baizik. Gure hizkuntza da, eta lanean ere gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea dugu.



Lanbide heziketa euskaraz

11 aukera,
11 Lan 

2015 / 2016

Lanbide heziketa euskaraz

11 aukera, 11 lan

2015 / 2016

	BURUNTZALDEAN	LEIZARAN Institutua (Andoain)	HERNANI BHI	ESCIVI (Bideo eta Zine Eskola, Andoain)	URNIETAKO SALESIARRAK	USURBIL GLHBI
HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA	Instazio elektrikoetako laguntzailea Grafikagintza					
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	Administrazio Kudeaketa					
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	Instalazio Elektriko eta Automatikoak					
FABRIKAZIO MEKANIKOA	Mekanizazioa Soldadura eta Galdaragintza					
GRAFIKAGINTZA	Grafikagintzaren produkzioa					
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA	Mantentze-lan Elektromekanikoa Hozteko eta Girotzeko instalazioak Beroa Sortzeko Instalazioak					
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	Administrazio eta Finantzak					
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	Mantentze-lan Elektronikoa Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak Automatizazioa eta Robotika Industrialak					
FABRIKAZIO MEKANIKOA	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa					
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA	Instalazio Termiko eta Fluidoaren Mantenimendua					
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK	Gizarteratzea Animazio Soziokulturala eta Turistikoa					
SOINUA ETA IRUDIA	Ikus entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa					
GRAFIKAGINTZA	Argitalpen diseinua eta produkzioa					

ERDI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Legend:

- B**: Hizkuntza ikasleen ezaugarri linguistikoen arabera ikastetxeak erabakiko du
- D**: EREDUA



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako **Euskarako Batzordeak**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ITZAIA



Buruntzaldeko ondoko eskualdeetan dauden lanbide
heziketa zentroetako informazioa baino ez dugu xertatu.
Informazio gehiago topatuko duzu webgune hauetan:
www.ikaslangipuzkoa.eus | www.hetel.org

Hassana Aaliaren hitzaldia Basteron



Datorren astelehenean –martxoak 9– Basteron hitzaldia eskainiko du Hassana Aalia saharar ekintzaileak. Iluntzeko 19:00etan hasiko da. Berriki, gazteari asilo politikoa eskatzearen alde agertu da Andoaingo Udala.

Auzolana Sorabillan

Larunbat honetan, goizeko 11:00etan, landatutako zuhaitzen txukunketa lanari ekingo diote Sorabillan. Auzotar guztiak gonbidatuta daude.

Martin Ugalde hizpide izan zuten



Larramendi Bazkuneko 111 Akademia literatur ekimenak hitzaldi interesgarria antolatu zuen astearte arratsaldean, Basteron. **Larraitz Ariznabarreta** Mondragon Unibertsitateko irakasleak Martin Ugalde idazle eta kazetariaren obra sakon aztertu du. Hitzaldian aipamen esanguratsuak eskaini zituen. Hitzordura hainbat herritar hurbildu zen. Aurkezle lanak **Nekane Goikoetxe** ak egin zituen. Aurretik, **Jon Unanue** 111 aldizkariaren aurkezpena egin zuen.

GRABAZIOA EGIN ZUTEN AURREKO ASTEBURUAN GARATE ESTUDIOETAN

Elkarteen doinuen diskoa

Herri ekimen batek sustatuta eta Joxe Mari Oiartzabalaren zuzendaritza artistikoarekin, herriko elkarten ereserkiak biltzen dituen diskoa grabatu zuten

aurreko asteburuan Sorabillako Garate Studios grabazio etxean. Dozenaka musikari eta danbor jotzailek parte hartu dute grabazio saioetan.



Andoaingo, Urrietako, Tolosaldeko eta Donostialdeko musikarien bilkura bilakatu zen diskoaren grabaketa.

Kaki Arkarazo eta Mikel Abrego musikari eza-gunek kudeatzen duten grabazio estudioan, herriko elkarten ereserkiak grabatu zituzten aurreko asteburuan. Lan jardun luzeak eta mardulak izan dira, musikari asko batera grabatzea ez baita lan erraza.

Diskoa hemezortzi piezek osatuko dute: hamalau elkartenak, eta beste lau gehiago: Santa Krutz Martxa, Andoaingo Ereserkia, Fernando Uribe-salgo eta Gora Kale Txiki txaranga.

Grabazio saiora elkarte ia guztietako kideak izan ziren, bakoitzeko 2 eta 3 kide ager-

tuz. Ez ohiko egoera zen haientzat, ez baita gauza bera kalean musika egitea edota grabazio estudio batean. Urdu-ri ere baziren, eta hala eta guztiz ere giro ederra sortu zen haien guztien artean.

Danbor jotzaileen lana bezain garrantzitsua izan zen musikariena. Herri ekimenak eta

bereziki Oiartzabalek diskoaren grabaziora maila handiko musikariak erakarri zituen. Besteak beste, Gipuzkoako musika eskolako lau zuzendari. Eta baita eskarmentu handia duten musikari apartak ere. Diskoaren sustatzaileek hutsune bat bete nahi dute diskoaren argitalpenarekin.



Andoaingo elkarteak danborra eta kupela joz aritu ziren ostiral iluntzean. Oso pozik irten ziren bizitako esperientziarekin.




KIROL ALBISTEAK

Eskualdeko kirolari ugari aurtengo Lilatoian

Aurreko igande goizean Donostiako erdigunean Lilatoia-aren edizio berria ospatu zuten. Gipuzkoako hiriburua lila kolorez jantzi zuten korrikariek, batzuk marka ona egitera eta beste batzuk ospakizunaz gozatzerara. Azken urteotan indar berezia hartzen ari da Lilatoia. 3600 emakumetik gora irten ziren, horietatik 44 Andoaingoak eta 41 Urnietakoak.

Sailkapen osoa:
Kirolprobak.com



Angela Alamo helmugara iristen.




Enara eta Izaro Pellejero.



Rosa Roldan.



Irene Jauregi.



Igone Beraza.



Idoia Mendiluze.



Nekane Minguez.



Arantxa Urretabizkaia.

Eski irteera Arettera

Martxoaren 14an Urnietako Zantapatuz mendi taldeak irteera antolatatu du Aretteko eski gunera. Goizaldeko 06:30ean irtengo dira, iluntzeko 20:00etarako itzultze-

ko asmoarekin. Interesa dutenek oraindik ere joateko aukera badute. Izena emateko epea igande honetan amaitzen da (martxoak 8).

Izena emateko zerrendak Urnietako hainbat tokitan eskuragarri daude: Xauxar, Guria, Amailur, Kantoi eta Ikasmin akademia.

Andoaingo txirrindulariak, taldeka onenak



Jubenil mailakoak podiumera igo ziren, lehen postua ospatzera.

Eibar, jubenilak. Sailkapena:

1. Iñigo Elozegi (Autonervion)
2. Pablo Benito (Tinlohi)
3. Oier Ibarguren (A.Sanz)
6. Peio Manterola (Andoaingo)
12. Ander Amonarriz (Andoaingo)
14. Koldo Velasco (Andoaingo)
35. Jokin Alberdi (Andoaingo)
41. Adrian Alamo (Andoaingo)

Taldeka:

1. Andoaingo.

Asteburuan:

Alebin-infantilak:

Beasain. Martxoak 7. 16:30.

Kadeteak:

Deba. Martxoak 7. 10:45.

Jubenilak:

Errenteria. Martxoak 8. 16:30.

Bi final berri Urnietarentzat

Urnietak 40-30 Hernani

Gipuzkoako txapelketa.

Trinketea.

Imanol Odriozola-Aitor Aldunberri-Iker Elgarresta.

Gazteleku 9-40 Urnietak

Udaberri Txapelketa.

Pala motza.

Aitor Argiñarena-Beñat Txapartegi.

UKE taldeko bi kide GRAVNI txapelketan, Gipuzkoarekin



Jon Iturbe eta Julen Loitegi UKEko ordezkariak.

Zorionekoak dira UKE taldeko kideak, Urnietak pilota taldeko bi kide Gipuzkoako elastikoarekin arituko baitira GRAVNI txapelketan. Afizionatu mailako txapelketa ezagunena eta onena da. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Errioxa eta Iparraldeko pilotari onenak lehian

arrituko dira. 22 urtez azpikoetan, Julen Loitegi trinketean arituko da. Esperientzia handia metatzen ari da Loitegi, dagoeneko munduko bi txapelketetan aritu baita.

Gomazko paletan arituko dena Jon Iturbe izango da.

Txapelketa martxoaren 14an hasiko da.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MARTXOAREN 6TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **"50 sombras de grey".** 19:30, 22:00. Martxoak 7, larunbata. 19:30. Martxoak 8, igandea. 19:30, 22:00. Martxoak 9, astelehena.
- **"Firends".** 17:00. Martxoak 7 eta 8.

Ikastaroa

Urnietan

- Dantza tailer berritzailea. 10:00-14:00. Sarobe. Martxoak 7 eta 14.

Ikuskizuna

Urnietan, Sarobe

- **"Printze txikia".** Ikuskizuna, hainbat artisten parte hartzearekin. 12:00. Sarobe. 3 euro. Martxoak 8, igandea.

Andoain, Bastero

- **"Verne txikia"** haur ikuskizuna. Martxoak 15, igandea. 17:00.

Antzerkia

Urnietan

- **"Euli giro"**, aurre estreinaldia. Ainhua Casina, Miren Gaztañaga, Erika Olaizola. 19:00. Sarobe. 4 euro. Martxoak 21, larunbata.

Martxoak 8

Urnietan

- **Hitzaldia:** "Emakumea, este-reotipoak eta komunikabideak". 18:00. Lekaio. Martxoak 5, osteguna.
- **Zinema:** "Violette". 22:00. Sarobe. 4 euro. Martxoak 6, ostirala.
- **Ikastaroa:** "Komunikazioa harreman pertsonaletan", Pepa Bojoren eskutik. 15:00. Sarobe. Ostiraleroko. Martxoak 6-ekainak 12.
- **Afaria:** Emakumeen afaria. 21:30. Oianume. Martxoak 7, larunbata.
- **Antzerkia:** Modelo "Klown-trapublizitarioa", Virginia Imazen eskutik. 18:00. Sarobe. Martxoak 8, igandea.
- **Bilkura:** Elkarretaratze instituzionala. 19:30. San Juan plaza. Martxoak 8, igandea.

Korrika

Andoain, Irunberri

- **Bertso afaria:** Lasarte eta Andoain aurrez aurre. 21:00. Irunberri. Martxoak 6, ostirala.

Urnietan

- Jarduera ugari. San Juan plazan, euriarekin Egapen. Egitaraua, 3. orrialdea. Martxoak 6, ostirala.

Martxoak 8

Andoain

- **Erakusketa:** "Andoaingo kaleak denontzat berdin (=)". 19:00. Bastero. Doan. Martxoak 6, ostirala.
- **Musika jaialdia:** Emakume musikariek eskainitakoa. 21:30. Auditorioa. 8 euro. Martxoak 6, ostirala.
- **Kalejira:** Pausoz Pauso. 12:00. Bastero plazatik. Martxoak 7, larunbata.
- **Hitzaldia:** "Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak". 19:00. Bastero. Doan. Martxoak 10, asteartea.
- **Zinema:** "Philomena". 18:30. Bastero. Doan. Martxoak 11, asteazkena.
- **Antzerkia:** "A vueltas con la vida". Beatriz Carvajal. 21:30. Bastero. 15 euro. Martxoak 13, ostirala.

Ospakizuna

Andoain

- Andoaingo Ernai eguna: 11:00 Tailerra Gaztetxean. 14:00 Bazkaria Gaztetxean. 17:30 Bilkura Juanitan Alkainen: "Emakume Langileak Zutik". 18:00 Buruntzantzan batukada. 21:30 Pintxo potea Gaztetxean. 22:30 Ezustean eta Patxu-ko Nice gaztetxean. Martxoak 7, larunbata.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Kuku! **Julen** Gurrutxaga Aizpuruak 3 urte beteko ditu martxoaren 15ean. Zorionak! Maialen, Iker, Ibai, Imanol, Ander eta Maitane.

ANDOAIN

ZORIONAK



Martxoaren 8an **Ibai** Gurrutxaga Amondarainek 14 urte beteko ditu. Jatorra ala satorra? Gora guta gutarrak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak bikote! **Iratik** martxoaren 8an 17 urte eder, eta ihintzak berriz bere lehenengo martxoaren 7an. Ondopasa parranderak. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Martxoaren 8an **Alai** etxeko txikiak 3 urte beteko ditu. Zorionak maitia! Egundoriontsua igaro. Maite zaitugu! Aitaxo eta amaxo.

ANDOAIN

ZORIONAK



Otsailaren 27an **Anek** 3 urte potolo beteko ditu, zorionaketa muxu erraldoia Aintzane, Erkuden, Iñaki eta Ainhoaren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Aitorrek urteak beteko ditu martxoaren 7an. Ondo-ondo ospatueguna eta muxu handiak etxeko guztien partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Martxoaren 8an **Liherrek** 8 urte beteko ditu. Egundoragarria pasa dezazula Erkuden, Aintzane, Iñaki eta Ainhoaren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Martxoaren 8an gure etxeko printzesak 8 urte beteko ditu, zorionak **Erkuden!!!** Asko maitate zaitugu, etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Izarne lankideak alaitasunez betedu Aiurriko erredakzioa. Segi horrela!

ANDOAIN

ONGI ETORRIA NAROA



Otsailaren 19an jaio zen gure printseza!! Ongi etorri maitia!! Txokolatezko muxuak!!! Aitaxo, amaxo eta Julen.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRI
• diseinua@aiurri.com
• Whatsapp bidez: 619 163 537.

Bidaiak hizpide Urnietan

"Mont blanc bira"

Zigor Iturrieta bidaiaria. 19:00. Lekaio. Martxoak 11, asteazkena.

"Viajes con Rocinante"


Isabel Suppe idazlea. 19:00. Sarobe. Martxoak 25, asteazkena.

Kilkerren soka

ERREZITALDIA

'Kapital publikoa'

JOSE LUIS OTAMENDI



Martxoak

5

osteguna
19:30

USURBIL

Potxonea kultur etxea



ANTOLATZAILE

III AKADEMIA